

**EL LEHENDAKARI Y EL CONSEJERO DE INDUSTRIA PRESIDEN LA
CONSTITUCIÓN DE LA SOCIEDAD EVE Y REPSOL**

- **EVE Y REPSOL constituyen una sociedad, con sede en Bilbao, para la construcción y explotación de una red de recarga de vehículos eléctricos en Euskadi**
- **Aspira a convertirse en líder en Euskadi en el número de puntos de recarga en el ámbito público y referente tecnológico en el mercado estatal en tecnologías de recarga de vehículos eléctricos**
- **Iniciará el despliegue de la red de recarga en 2011**

En 2009, el Gobierno Vasco, en su Estrategia para la introducción del vehículo eléctrico en Euskadi, identificó la necesidad de desarrollo de una infraestructura de puntos de recarga con cobertura total del territorio, a fin de garantizar la movilidad en vehículo eléctrico dentro del País Vasco. Con este propósito, los presidentes de EVE y REPSOL firmaron, en presencia del Lehendakari y con fecha 29/10/09, un protocolo de intenciones para colaborar en la implantación de una red de recarga de vehículos eléctricos en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Desde dicha firma hasta el mes de junio de 2010, ambas empresas han trabajado en la elaboración de las especificaciones técnicas de las instalaciones de recarga que se implantarán en los próximos años, el diseño de la red y la elaboración del plan de negocio de la empresa que ahora se crea para este cometido. Para este trabajo se constituyeron dos grupos de trabajo con representantes de ambas compañías, uno de carácter técnico y otro de carácter directivo. Además, se contó con asistencia técnica externa tanto para los aspectos técnicos como para los aspectos de negocio.

La nueva sociedad creada por EVE y REPSOL

La nueva Sociedad se denomina IBIL, gestor de carga de vehículo eléctrico, S.A.; está participada al 50% por EVE y REPSOL, tiene su sede en Bilbao y operará como gestor de carga del sistema eléctrico según la definición que de este agente del sector se hace en la Ley del Sector Eléctrico. Tiene como misión el desarrollo de red de infraestructura de recarga de vehículos eléctricos y comercialización de servicios de recarga (electricidad y de valor añadido) en los ámbitos vinculado y público; y aspira a convertirse en líder en Euskadi en número de puntos de recarga en el ámbito público y referente tecnológico en el mercado estatal en tecnologías de recarga de vehículos eléctricos.

La nueva empresa comenzará su actividad en 2010. La instalación de algunos puntos piloto está prevista antes de concluir el año y el despliegue de red comenzará en 2011. Para ese año está previsto instalar 85 puntos e ir incrementando rápidamente la red hasta alcanzar entre 7.000 y 13.000 puntos instalados en 2020 y hasta 70.000 en 2030.

Los primeros puntos de suministro se instalarán, según el plan previsto, en las siguientes ubicaciones:

- Vía pública y parkings públicos de las 3 capitales vascas.
- Parkings de Centros comerciales.
- Parkings disuasorios en las estaciones de transporte público.
- Aparcamientos particulares y de vehículos de empresas.
- Y, algún punto en carretera que dé tranquilidad al usuario del VE en caso de que vea que su batería se está agotando. Estos puntos estarán en las vías principales, en estaciones de servicio.


La intervención de IBIL en esta iniciativa busca dinamizar una actividad cuya plena rentabilidad económica e implantación masiva se logrará a largo plazo, lo que retrae a los posibles inversores privados. IBIL persigue con ello, el doble objetivo de garantizar la movilidad en vehículo eléctrico por todo Euskadi y de introducir a los sectores industriales vascos de energía y electrónica en este nuevo mercado.

Escenario de penetración del vehículo eléctrico en Euskadi

El plan de negocio de IBIL se enmarca en una Estrategia de fomento del vehículo eléctrico que prevé un crecimiento lento del número de vehículos eléctricos en circulación con el objetivo a 2020 de que el 10% de los vehículos que se matriculen en dicho año, sean eléctricos. Este objetivo no se logrará si el potencial usuario tiene la sensación de que sólo puede circular en el entorno de su domicilio pues no dispone de puntos de recarga que le permitan recorrer distancias largas. Es por ello que se estima necesario para los primeros años, el instalar puntos de recarga con mayor celeridad que la venta de vehículos, tratando de mitigar esta sensación de inseguridad en los potenciales usuarios de VE y animando con ello a la compra de este tipo de coches.


Evolución prevista en el número de VE y de puntos de recarga en Euskadi

Evolución prevista en el número de VE y de puntos de recarga en Euskadi			
	2010-2012	2013-2015	2016-2020
Ventas de VE	399	6.761	33.994
TOTAL VE en circulación	399	7.160	41.154
TOTAL Puntos instalados en el año	754	7.410	35.026
TOTAL Puntos operativos	754	8.164	43.190



El calendario de entrada previsto para cada uno de los tipos de recarga (lenta, semirrápida y rápida), así como las ubicaciones preferentes para cada uno de ellos, puede consultarse en la siguiente figura en la que, además, se deja constancia de la intención de esta nueva Sociedad de iniciar proyectos piloto que adelanten las fechas previstas tanto de la carga semirrápida como de la rápida.

Tipo de instalación por emplazamiento



EEEEK ETA REPSOLEK SOZIETATE BAT ERATU DUTE, EUSKADIN IBILGAILU ELEKTRIKOAK BIRKARGATZEKO SAREA ERAIKITZE ETA USTIATZE ALDERA

- **2010eko lehen seihilekoan, jarri beharreko instalazioen definizio, sarearen diseinu eta negozio planari lotutako lanak egin dira**
- **Birkargatzeko sarea 2011n hasiko da hedatzen**
- **Egoitza Bilbon izango duen sozietate berrian partaidetza EEEk eta REPSOLEk izango dute, %50na, Sozietate Anonimoa izango da, eta sistema elektrikoaren karga kudeatzaile moduan arituko da**

Eusko Jaurlaritzak, 2009an, Euskadin ibilgailu elektrikoari sarbidea emateko estrategia definitu zuen, eta lurralde osoan estaldura izango duen birkarga sarearen azpiegitura garatu beharra nabarmendu zuen, ibilgailu elektrikoaren mugikortasuna Euskal Autonomia Erkidego osoan bermatu ahal izateko. Hori lortze aldera, 2009ko urriaren 29an, lehendakaria buru zela, EEEko eta REPSOLEko presidentetek lankidetzara edo asmoen protokolo bat sinatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailu elektrikoak birkargatzeko sarea jartzeko asmoz.

Sinadura ekitaldia egin zenetik 2010eko ekainera arte, alde biak buru-belarri aritu dira lanean, ekimena lehenbailehen gauzatzeko. Hartara, datozen urteetan jarriko diren birkarga-instalazioen ezaugarri teknikoak prestatu eta definitzeaz gain, sarearen diseinuari lotutako lanak finkatu dira eta hori guztia aurrera eramateko behar den enpresaren negozio planaren nondik norakoa ezarri da. Lan horiek gauzatzeko bi lan talde eratu ziren, talde bien ordezkariak osatuta. Talde horietako batek izaera teknikoa zuen; besteak, berriz, zuzendaritzako kideen presentzia zeukan. Talde horietaz gainera, kanpoko konpainia batzuen laguntza teknikoa jaso zuten, alderdi tekniko eta negozioari lotutako alderdiak zehaztu eta finkatzeko.

EEEEk eta REPSOLEk eratutako sozietate berria

IBIL, ibilgailu elektrikoak kargatzeko kudeatzailea, S.A. izena izango duen sozietate berrian partaidetza EEEren eta REPSOLEn esku egongo da, partaidetza berarekin, %50na. Egoitza Bilbon izango du eta sistema elektrikoaren karga kudeatzaile moduan jardungo du, Sektore Elektrikoaren Legean eragile edo figura horretaz egiten den definizioaren arabera. Sozietatearen xedea da Euskadin ibilgailu elektrikoak birkargatzeko azpiegitura abian jartzea eremu publikoan eta pribatuan eta hari lotutako zerbitzuak (elektrizitatea eta balio erantsia) eskaintzea. Euskadin lider izateko asmoz eratu

da sozietatea, arlo publikoan birkargatzeko gune kopuruari dagokionez, eta ibilgailu elektrikoak birkargatzeko teknologien inguruan erreferente teknologikoa izan nahi du Estatuko merkatuan.

Sozietate berria 2010ean hasiko da lanean, eta aurreikuspenen arabera, urtea amaitu aurretik, birkargatzeko gune pilotu batzuk jarriko dira. Nolanahi ere, sarearen hedapenari 2011n ekingo zaio. Hori horrela, 2011. urtean, 85 gune jarriko direla espero da, eta hurrengo urteetan nabarmen gehituko da birkargatzeko gune kopurua: 7.000 eta 13.000 gune artean 2020 urterako eta 70.000 inguru 2030 urterako.

Aurreikusitako plangintzaren arabera, elektrizitatez hornitzeko lehen guneak honako leku hauetan jarriko dira:

- EAEko hiru hiriburuetakoko kaleetan eta parking publikoetan.
- Merkataritza-guneetako parkingetan.
- Garraio publikoaren geltokietako disuasio parkingetan.
- Aparkaleku partikularretan eta enpresen ibilgailuen aparkalekuetan.
- Errepideetako leku batzuetan, ibilgailu elektrikoaren erabiltzailea lasaitasunez ibil dadin, bateria deskargatuz gero, birkargatzeko aukera izango duela bermatzeko. Leku horiek errepide nagusietan eta gasolindegietan izango dira.


IBIL sozietatea eraketaren bidez, ibilgailu elektrikoaren inguruko jardura sustatu nahi da; betiere, errentagarritasun ekonomiko egokia eta oso kopuru handiko zabalkundea epea luzean lortuko dela jakitun izanik. Hain zuzen ere, faktore horiek dira ekimen pribatuari atzera eragiten diotenak horrelako ekimenean. IBILen helburua da ibilgailu elektrikoaren erabilera bermatzea EAE osoan zehar eta energia eta elektronika alorrean diharduten euskal enpresei aukera ematea merkatu berri horretan sartzeko.

Euskadin ibilgailu elektrikoaren sartzeko eszenatokia

IBILen negozio plana ibilgailu elektrikoaren sustatzeko estrategiaren barruan dago, eta definitutako estrategia horren arabera, zirkulazioan izango den ibilgailu elektrikoaren kopurua mailaka eta ezari-ezarian joango da gehitzen. Hala,

2020. urteari begira, matrikulatuko diren automobilen %10 ibilgailu elektrikoak izatea da ezarritako helburua. Helburu hori nekez lor daiteke, baldin eta ibilgailu elektrikoaren erabiltzailea izan litekeenak pentsatzen badu bere ingurune hurbilean baino ezin dela ibili, hau da, distantzia luzeak egiteko beharrezkoak diren birkargatzeko guneak eskura ez baditu. Horrexegatik, hain zuzen ere, datozen urteetan, ibilgailuak saltzeari bainoago, birkargatzeko guneak jartzeari eman behar zaio lehentasuna. Era horretan, ibilgailu elektrikoaren erabiltzaileen artean segurtasun ezaren sentrazioa saihestuko da eta horrelako ibilgailuak erostera gero eta jende gehiago animatuko da.

Aurreikusten den ibilgailu elektriko kopuruaren bilakaera eta Euskadin birkargatzeko guneak			
	2010-2012	2013-2015	2016-2020
IEen salmentak	399	6.761	33.994
GUZTIRA, IEak zirkulazioan	399	7.160	41.154
GUZTIRA, Urtean jarritako guneak	754	7.410	35.026
GUZTIRA, Gune erabilgarriak	754	8.164	43.190



Karga mota bakoitza (geldia, erdi-arina eta arina) abian jartzeko aurreikusten den egutegia eta horietako bakoitzari dagokion kokalekua ondoko irudian ikus daitezke. Gainera, karga erdi-arina eta arinari lotutako guneak jartzeko aurreikusitako datak aurreratu nahian, sozietate berriak proiektu pilotu batzuk martxan jartzeko asmoaren erakusle den informazioa jasotzen da irudi horretan.

Instalazio mota kokaleku bakoitzean

